| premiamendu bidez eskatu ahal izango dira, itzulketa ez baldin bada finkatutako epeen barruan egiten.<br>**3.** Kudeaketa-, ikuskaritza- eta kontrol-ekintzen bitartez eskatzaileek diru-laguntza modu okerrean lortu edo erabili dutela susmatzen bada, espedientean susmo horien berri emango da, eta kautelazko neurriak hartu ahal izango dira; esate baterako, fakturen, dagozkien dokumentuen, horien ordezkoen eta susmo horiek sorrarazten dituen edozein dokumentu gordetzea. | se efectúa en los plazos que se determinen.<br><br>**3.** Cuando en el ejercicio de las funciones de gestión, inspección o control se deduzcan indicios de incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención o ayuda percibida, se dejará constancia en el expediente de tales indicios, y se podrán acordar las medidas cautelares precisas, tales como la retención de las facturas, documentos equivalentes y sustituidos y de cualquier otro documento relativo a las operaciones en las que tales indicios se manifieste. |
| **15. ZIGORREN ERREGIMENA. ARAU HAUSTEAK.** | **15. RÉGIMEN SANCIONADOR. INFRACCIONES** |
| Subentzioen arloan arau-hauste administratiboak dira azaroaren 17ko 38/2003 Subentzioen Lege Orokorreko 56., 57. eta 58. artikuluetan tipifikatutako ekintzak eta omisioak, eta zigorra izango dute nahiz eta zabarkeria sinplea izan. | Constituyen infracciones administrativas en materia de subvenciones las acciones y omisiones tipificadas en los artículos 56,57 y 58 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y serán sancionables incluso a título de simple negligencia. |
| **6.ONDASUN PUBLIKOETAN KALTEAK** | **16. DAÑOS EN BIENES PÚBLICOS** |
| Diruz lagundutako jardueran publikoei kalte eginez gero, kontraesaneko espedientea izapidetuko dute, kaltea zehazteko. Eragindako kalteak konpontzeko edo gauzak bere onera ekartzeko, dirulaguntzatik jasotzeko gelditzen den dirua erabiliko dute. Hori nahikoa ez bada, gelditzen dena ordaintzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte. | Si en el desarrollo de la actividad subvencionada se causaran daños en bienes de dominio público, se tramitará expediente contradictorio para su determinación. El importe de la reposición o reparación de los daños causados se compensará con cargo a la subvención pendiente de percibir. En caso de que no alcanzara a cubrir la totalidad de aquel importe, se adoptarán las medidas oportunas para el cobro de la cantidad restante. |
| **17. ALKATEAREN GAITZEA** | **17. HABILITACIÓN AL ALCALDE O ALCALDESA** |
| Alkatea, ordenantza honetan legediak zehaztean dituen eta beharrezkoak diren aldaketa legalak egiteko gaitzen da, hauek baldintza edo zenbateko edo portzentaien egokitzapena suposatzen duenean, plenoan lehenbailehen aurkeztu behar dituelarik aldaketak berresteko. | Se habilita al alcalde o alcaldesa para que inserte en esta ordenanza cualquier tipo de modificación que responda exclusivamente a cambios legales que deban ser aplicados obligatoriamente y que conlleven una alteración de los requisitos o adecuación automática de cuantías o porcentajes, teniendo que dar cuenta inmediatamente al pleno a efectos de su ratificación. |

TOLOSAKO UDALA

# ERANSKINAK-ANEXOS

| 1. ERANSKINA: TOLOSAKO KIROL ELKARTE ETA TALDEEN EGITURAZKO GARAPENERAKO DIRULAGUNTZA ARRUNTAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK | ANEXO 1: BASES REGULADORAS DEL OTORGAMIENTO DE SUBVENCIONES ORDINARIAS PARA EL DESARROLLO ESTRUCTURAL DE LOS CLUBS Y AGRUPACIONES DEPORTIVAS DE TOLOSA |
|---|---|

**1.- HELBURUA**

Oinarri hauen helburua irabazi asmorik gabeko kirol-taldeek eta klubek dirulaguntzak zuzenean eskatzeko duten aukera eta laguntza horien kontzesioa arautzea da. Dirulaguntzak haien egiturak indartzeko eta garatzeko dira, bai eta Tolosako Udaleko Kirol Sailaren helburuak errespetatzen eta sendotzen dituzten jarduerak egin ditzaten ere.

Dirulaguntzak urtero banatuko dira, abian jarritako, askotariko ohiko jarduerak kontutan hartuta.

**2.- PERTSONA ETA ERAKUNDE ONURADUNAK.**

Dirulaguntza horiek lortu ahal izango dituzte ondoko baldintza hauek betetzen dituzten irabazi asmorik gabeko kirol arloko klub eta elkarteek:

.-Indarrean dagoen legediaren arabera eratuta egotea, Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundeen Erregistroan edo Elkarteen Erregistro Orokorrean izena emanda egotea, eta egoitza soziala Tolosan izatea.

**1.- OBJETO**

EL objeto de las presentes bases es la regulación del acceso y concesión de ayudas económicas directas a clubs y agrupaciones deportivas sin ánimo de lucro, para el desarrollo y consolidación de sus estructuras, así como la realización de actividades, que por su proyección e interés, respeten y refuercen los objetivos del Área de Deportes del Ayuntamiento de Tolosa.

Estas ayudas se distribuirán con carácter anual y en función de las actividades deportivas habituales de diversa índole, llevadas a cabo.

**2.- PERSONAS Y ENTIDADES BENEFICIARIAS.**

Podrán optar a estas ayudas económicas, los clubs y agrupaciones deportivas sin ánimo de lucro que cumplan los siguientes requisitos:

.-Estar constituidos de acuerdo con la legislación vigente e inscritos en el Registro de Entidades Deportivas o en el Registro General de Asociaciones del Gobierno Vasco y tener la sede social en Tolosa.

.-Egunean egotea ogasun eta gizarte segurantzaren betebeharretan.

.-Klubak edo elkarteak, bultzatzen dituen kirol-modalitate eta jardueretan, emakumeek eta gizonek tratu eta aukera-berdintasuna izango duela sustatu beharko du.

.-Gipuzkoan eskola kirolaren inguruan indarrean dagoen araudia betetzea.

.-Klubek edo elkarteek bultzatzen dituzten kirol-modalitate eta jardueretan euskararen erabilera lehentasunez bermatuko da diulaguntzaren xede den ekintzan, eta horren publizitatean edota ondoriozta daitezkeen hitzaldi eta antzekoetan.

.-Estar al día con las obligaciones fiscales y de la Seguridad Social.

.-Promover la igualdad de trato y oportunidades de mujeres y hombres con relación al deporte y actividad que fomente el club o entidad.

.-Cumplir lo dispuesto en la normativa vigente en Gipuzkoa sobre Deporte Escolar.

.-El uso del euskera en las diferentes modalidades y actividades deportivas que promuevan los clubes o asociaciones se garantizará con carácter prioritario en la acción objeto de subvención y en la publicidad de la misma, así como en las conferencias y similares que puedan derivarse.

**3.- ESKAERAK AURKEZTEA.**

Aurreko atalean zehaztutako baldintzak betetzen dituzten klubek eta taldeek laguntza horiek eskatu nahi badituzte, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute: **dirulaguntzen eskaera-orria,** behar bezala beteta. Horretaz gain, oinarri hauetan eskatzen den dokumentazioa erantsi beharko dute.

**3.- PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES.**

Aquellos clubs y agrupaciones deportivas que cumplan los requisitos especificados en el apartado anterior y que deseen optar a las presentes ayudas, deberán presentar en el registro del Ayuntamiento **el impreso de solicitud de subvención** debidamente cumplimentado acompañado de la documentación requerida en estas bases.

4.- **ESKAERAREKIN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA.**

***Dirulaguntza eskaera***rekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

4.- **DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR CON LA SOLICITUD**

La documentación que deberá acompañarse a la ***Solicitud de subvención*** es la siguiente:

.-Jardueren programa-aurreikuspena eta aurrekontua (A1A inprimakia, eta A3P dagokionean)

.-Programa-previsión de actividad y presupuesto (impreso A1A, y A3P cuando corresponda).

.-Erantzukizun zibileko aseguruaren ordainketa egunean izatearen frogagiria.

.-Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna eta Gizarte Segurantza) egunean egotearen ziurtagiriak, baldin eta eskaera honetan aurka egiteko eskubideaz baliatu bada.

.-Justificantes de estar al corriente del pago del seguro de responsabilidad civil.

.-Justificantes de estar al corriente en sus obligaciones fiscales y para con la seguridad social si se ha ejercido el derecho de oposición en el impreso de solicitud.

## 5.- BALORAZIO IRIZPIDEAK

Elkarteetako egiturak garatzeko bideratuko den dirulaguntzak honako aldagai hauek baloratuko ditu:

- Hemengo kirolen sustapena.
- Kirolariak : kopurua eta generoa.
- Lehiaketa-maila.
- Teknikarien kualifikazioa eta dedikazioa.
- Teknikarien erregularizazioa.
- Interesekotzat jotzen diren eta herritarrentzako kirol eskaintza hobetzera bideratuta dauden ekimenak.
- Honako hauek sustatzen dituzten ekimenak: berdintasun-balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitateak.
- Kirolean hasteko jarduerak (kirol eskolak) eskola kiroleko jarduera

## 5.- CRITERIOS DE VALORACIÓN

La subvención destinada al gasto estructural de los clubs valorará los siguientes indicadores:

- Fomento de deportes autóctonos.
- Deportistas: número, género.
- Nivel de competición
- Cualificación del equipo técnico y su dedicación.
- Regularización del personal técnico.
- Iniciativas de actividades de interés tendentes a la mejora de la oferta deportiva a la ciudadanía.
- Iniciativas, prácticas y acciones positivas que fomenten valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.
- Adecuación de las actividades de iniciación (escuelas deportivas) a los

programamara eta irizpideetara ondo egokitzea.

- Auto-finantzatzeko gaitasuna (gastuen eta diru-sarreren erlazioa).
- Beste aldagai batzuk (garraioaren kostua, material berezia, lankidetzak, kalitate ziurtagiriak).

criterios y programa de actividad del deporte escolar.

- Capacidad de autofinanciación (relación gasto-ingreso).
- Otras variables (coste en desplazamientos, materiales especiales, colaboraciones, certificados de calidad).

## 6.-DIRULAGUNTZAK EBALUATZEA ETA KUANTIFIKATZEA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 3ko 1/2022 Legea betez (21 bis artikulua), deialdi honetan banatu beharreko guztizko kopurutik, eta adierazleak baremmatu aurretik, % 5 gordeko da bi irizpide betetzen dituzten erakunde eskatzaileentzat, adierazle bakoitzean ezarritakoaz haratago. Bi irizpide hauek erabiliko dira: zuzendaritza-taldeak gutxienez emakume bat izatea, eta lizentzia guztien % 25, gutxienez, emakumezkoak izatea. Adierazitako irizpideak betetzen dituzten eskatzaileen artean egingo da banaketa. Bi irizpide horiek ez betetzeak ez du esan nahi dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko denik, eta gainerako adierazleei ere ez die eragingo.

Ebaluatzeko adierazleak honela puntuatuko dira:

### I. Federazioetako errendimenduko kirol-lizentziak

## 6.- EVALUACION Y CUANTIFICACION DE LAS SUBVENCIONES

En cumplimiento de la Ley 1/2022, de 3 de marzo para la igualdad de mujeres y hombres (artículo 21 bis), de la cantidad total a repartir en esta convocatoria y antes de proceder a la baremación de los diferentes indicadores, se reservará un 5% para la entidades solicitantes que cumplan dos criterios, más allá de lo establecido en cada uno de los indicadores. Estos dos criterios serán: que el equipo directivo lo conforme al menos una mujer, y que como mínimo el 25% del total de las licencias sean femeninas.
El reparto se realizará entre los solicitantes que cumplan los criterios señalados. El no cumplimiento de estos dos criterios no supone la pérdida del derecho de subvención y tampoco afecta al resto de los indicadores.

Los diferentes indicadores de evaluación se puntuarán de la siguiente manera:

### I. Licencias federativas de rendimiento.

Puntuak emango dira abian den denboraldikoak diren errendimenduko txapelketa edo liga ofizialetan parte hartzeko lizentziengatik:

.-Puntu 1 federazioetako errendimenduko oinarrizko lizentzia bakoitzeko.
.-1,5 puntu federazioetako errendimenduko lizentziengatik kirol autoktonoen modalitateetan, gutxienez 10 direnean.
.- 2 puntu elite-lizentzia bakoitzeko (*)
.-Kirol egokituko federazioaren lizentzia bakoitzeko: 5 puntu.
.- Eskola lizentziak: 0,5 puntu ikastetxeen bidez Aldundian izena emana duten eskola lizentzia bakoitzeko.

Federazioetako errendimenduko emakumezkoen lizentzien kasuan, kadete mailatik gorako kategorietarako, emakumezkoen lizentzien puntuazioari % 50 erantsiko zaio.

(*) Oinarri hauen ondorioetarako, elite-kirol taldetzat hartuko dira beren kirol-modalitatean dagoen kategoria absolutuan parte hartzen dutenak, edo, lehiaketa hori Estatu osokoa bada eta modalitate hori gutxienez lau maila absolututan badago egituratuta, bi maila nagusietan parte hartzen dutenak. Banakako modalitateetan, eliteko kirolaritzat hartuko dira Estatu osoan edo goragoko esparru batean jokatzen diren lehiaketa ofizialetan parte hartzen dutenak, beti ere lehiaketa horiek kategoria

Se otorgan puntos a licencias para campeonatos o ligas oficiales de rendimiento correspondientes a la temporada en curso :

.-1 punto por licencia federativa de rendimiento básica.
.-1,5 puntos para licencias federativas de rendimiento en modalidades autóctonas con un mínimo de 10 licencias.
.-2 puntos por licencia de élite (*)
.-Licencias de la federación de deporte adaptado: 5 puntos.
.-Licencias escolares: 0,5 puntos, para cada licencia escolar inscritos en la Diputación a través de sus centros escolares.

Para cada licencia federativa femenina de rendimiento a partir de la categoría cadete a la puntuación de las licencias femeninas se le añadirá un 50% .

(*) A los efectos de las presentes Bases se considerará deporte de élite a aquellos equipos que participen en la máxima categoría absoluta existente en su modalidad deportiva, o en las dos máximas divisiones cuando esta competición sea de ámbito estatal y la modalidad en cuestión esté estructurada en un mínimo de cuatro divisiones absolutas. En las modalidades individuales, se considerará deportista de élite a los y las participantes en campeonatos oficiales de ámbito estatal o superior, siempre que éstos lo hagan en

absolutukoak badira eta parte-hartze librekoak ez badira.

(**) Dirulaguntza hauetarako, kirol-ataltzat hartzen da halako kirol-modalitatetzat hartutakoekin bat datozenak, baldin-eta gutxienez indarreko lizentzia duten 10 kirolari badituzte lehian.

II. LEHIAKETA MAILA
Ekipo bakoitzak errendimendu txapelketa ofizialetan duen lehiaketa-esparruaren arabera.

Taldeko kirolak:

**.-Lurraldekoa**: 0,5 puntu taldeko.

**.-Erkidegokoa**:1 puntu taldeko

**.-Estatukoa**: 5 puntu taldeko

**.-Europakoa edo haragokoa:** gehienez, 15 puntu.

-Lortutako kategoria gorenean parte hartzeak markatuko du puntuazioa, bai taldeka, bai banaka.

Banakako kirol-modalitateetarako, banakako 10 lizentziatik behin talde bat hartuko da kontuan. Kirolariek kategoria bakoitzean lortutako lehiaketa-maila gorenaren arabera emango da puntuazioa (kirolari kopurua edozein izanda ere). Kategoria bakoitzean lortutako baturak emango du puntuazioa adierazle honetan. Taldekako kiroletan aplikatzen den irizpide berari jarraituko zaio lehiaketa-eremuaren arabera. Adibidez: lurralde-mailako 5 kirolari kadetek, estatu-lizentzia duten

categoría absoluta y no sean de libre participación.

(**) Se entenderá por sección deportiva a efectos de estas subvenciones, aquella que se corresponda con modalidades deportivas reconocidas como tales, y que tenga un mínimo de 10 deportistas en competición, con licencia en vigor.

II. NIVEL DE COMPETICIÓN
Por ámbito de competición de cada equipo en competiciones oficiales de rendimiento

Para deportes de equipo:

**.-Territorial**: 0,5 punto por equipo

**.-Autonómico**:1 punto por equipo.

**.-Estatal**: 5 puntos por equipo

**.-Europea o más:** hasta 15 puntos

.-La puntuación la marcará la participación en la máxima categoría alcanzada, bien sea por equipos bien sea individual.

Para las modalidades deportivas individuales, cada 10 licencias individuales se considerará un equipo. La puntuación se otorgará de acuerdo al máximo nivel de competición alcanzado por los/las deportistas en cada categoría (independientemente del número de deportistas). La suma obtenida dará la puntuación en este indicador. Se seguirá el mismo criterio por ámbito de competición, que el aplicado para los deportes colectivos. Ejemplo: un equipo configurado por de 5 deportistas cadetes

3 jubenilek, eta estatu-lizentzia duten bi seniorrek osatutako talde batek 10,5 puntu lortuko lituzke.

10 urtetik beherako talde bat edo talde metatua 10 kirolari baino gehiagokoa denean, baina talde berri bat osatzen ez duenean, proportzioan aplikatuko da lehiaketa-eremu bakoitzerako ezarritako puntuazio-marjina.

de nivel territorial, 3 jubeniles licencia estatal y dos senior con licencia estatal obtendría 10,5 puntos.

Cuando resulta un grupo menor de 10 o el acumulado sobrepasa los-as 10 deportistas pero no completa un nuevo grupo, se aplicará proporcionalmente el margen de puntuación establecido para cada ámbito de competición.

.-Lehiaketa-esparrua behin bakarrik kontatuko da, esparru horretako lehiaketak edo jardunaldiak gehiago izan badira ere.

.-El ámbito de participación se contabilizará una sola vez, aunque las competiciones o jornadas en las que se haya participado sean varias.

.-Aisialdiko ligak ez dira puntuatzen.

.-Las ligas de recreativas no se puntúan.

**III. Indarreko lizentzia duen kirol titulu bakoitzeko**.

Gehienez 25 puntu emango dira kasuan kasuko kirol-modalitatearekin bat datozen titulazioengatik.

.-0,5 puntu duen monitore/arbitro bakoitzari.

.-Puntu 1 oinarrizko entrenatzaile (I. maila) edo KT1ei (kirol teknikari).

.-3 puntu KT2, erdi mailako entrenatzaile (II. maila), jarduera fisiko eta kirol-jardueretan teknikari, edo irakasle-ikasketak eginak dituztenei (jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietan espezializatuta).

.-5 puntu KT3, goi mailako teknikari-entrenatzaile (III. maila) edo jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietan lizentziadunei.

**III. Por titulación deportiva con licencia en vigor.**

Se concederán un máximo de 25 puntos por titulaciones acordes a la modalidad deportiva correspondiente.

.- 0,5 puntos por monitor/árbitro

.-1 punto por entrenador-a básico (nivel I), TD1 (técnico deportivo)

.-3 puntos por TD2, entrenador-a medio (nivel II), técnico-a en actividades físicas y deportivas (TAFYD) o magisterio con especialidad en ciencias de la educación física y el deporte.

.-5 puntos por TD3 , técnio-entrenador/a (nivel III) o licenciatura en ciencias de la educación física y el deporte.

TOLOSAKO UDALA

Puntuazio bakoitzari % 50 gehituko zaio, baldin eta tituludunak emakumeak badira

Titulazio bakoitzeko puntuek eragina izango dute dirulaguntza kalkulatzeko, astean 3 ordutik gorako dedikaziotik aurrera.

Cada puntuación se incrementará en un 50% cuando las titulaciones correspondan a mujeres.

Los puntos por titulación surtirán efecto para el cálculo de la subvención a partir de 3 horas/semana de dedicación.

**IV. Autofinantzaketa: finantzaketa askotariko diru-iturritatik lortzeko gaitasuna.**

.-Diru-sarrera guztien % 10era arte.............. gehienez 3 puntu.

.-Diru-sarrera guztien % 11 eta % 20 artean...5 puntu arte.

.-Diru-sarrera guztien % 21 eta % 40 artean....10 puntu arte.

.-Diru-sarrera guztien % 40 baino gehiago...20 puntu arte

* kuotak eta beste dirulaguntzak ez dira aintza hartuko ondorio hauetarako.

**IV. Autofinanciación: capacidad para obtener financiación de fuentes diversas**

.-Hasta el 10 % del total de ingresos.....hasta 3 puntos

.-Entre 11 % y 20 % del total de ingresos...hasta 5 puntos

.-Entre 21 % y 40 % del total de ingresos...hasta 10 puntos

.-Más del 40 % del total de ingresos......hasta 20 puntos.

* los ingresos por cuotas y subvenciones no se considerarán a estos efectos.

**V. Egituren balorazioRako beste kontzeptu batzuk:**

Gehienez 75 punturaino, honako adierazle hauen arabera:

.-Desplazamendu gastuaren eragina balantze orokorrean, ohiko jardueretan, 10 eta 15 puntu arte, gastu aurrekontu osoaren % 25 eta 50% artean dagoenean.

.-Emakumeez osatutako zuzendaritza-batzordea:

% 25-50... 5 punturaino

**V. Otros conceptos de valoración de las estructuras:**

Hasta un máximo de 75 puntos en función de los siguientes indicadores:

.-Incidencia del gasto por desplazamiento en el balance general, para actividades ordinarias, entre 10 y 15 puntos cuando el gasto en desplazamiento esté entre el 25% y 50% del total del presupuesto.

.-Junta directiva integrada por mujeres:

25-50%...hasta 5 puntos


Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxa: 943 69 75 10 - e-mail: udate@tolosa.eus
www.tolosa.eus

% 50 baino gehiago... 10 puntu

.-Erakundeen kirol egiturak profesionalizatzea. Kirol teknikarien lan egoera baloratuko da, 5 puntu emanda teknikari bakoitzagatik, bere lan egoera erregularizatuta badago, kontratu bidez, zerbitzuak emanez (fakturazioa) edo indarrean dagoen lan-legearekin bat datorren beste jarduketarekin. Gehienez 50 puntu arte. Teknikariak emakumean direnean, bakoitzagatik 6 puntu emango dira.

**VI. Intereseko kirol txapelketa, memorialen antolaketa.**

Dirulaguntza hauen ondorioetarako, gizarte arloan eragileena den elkartearen edota honen sekzioko jarduera puntuatuko da, beti ere defizitarioa bada.

Lortutako puntuak klubaren guztizko puntuazioari gehituko zaizkio, baldin eta dagokion dirulaguntza klubaren guztizko defizitaren berdina edo txikiagoa bada. Defizita gaindituko balitz, adierazle honen puntuek ez lukete eraginik izango dirulaguntzan.

Balorazio-alderdiak honako hauek izango dira:

Kirol-kluben edo kirol-jardueren urteurrenak:

Aurreko urteekin alderatuz urteurrena ospatzeko jarduerak proposamen ezberdinik eta hobetua badauka, horrela puntuatuko da:

+ de 50% ...10 puntos

.-Profesionalización de las estructuras deportivas: se valorará la situación laboral del personal técnico concediendo 5 puntos por cada técnico/a en situación laboral regularizada mediante contrato laboral, prestación de servicios (facturación) u otra acorde a la legislación laboral vigente, hasta un máximo de 50 puntos. En el caso de que sean mujeres se darán 6 puntos por cada una.

**VI. Organización de campeonatos, memoriales deportivos de interés social.**

A efectos de la subvención puntuará el evento del club y/o de una sección de éste, con mayor repercusión social y/o deportiva, siempre que sea deficitaria.

Los puntos obtenidos sólo se sumarán a la puntuación global del club en el caso de que la subvención resultante sea igual o inferior al déficit total del club. Si se sobrepasara el déficit los puntos de este indicador no tendrían efecto en la subvención.

Los aspectos valorativos serán los siguientes:

Aniversarios de clubes deportivos o eventos deportivos

Se puntuará si el evento tiene una propuesta singular y mejorada respecto a ediciones anteriores con motivo del aniversario.


Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxa: 943 69 75 10 - e-mail: udate@tolosa.eus
www.tolosa.eus

- 25. urteurrena: 10 puntu
- 50. urteurrena: 20 puntu
- 75. urteurrena: 50 puntu
- Mendeurrena: 100 puntu

Antolaketarako giza baliabideak

20 pertsona azpitik…...5 puntu arte

20-50 pertsona……….........10 puntu

51-100 pertsona……..........,25 puntu arte

Kirol maila

-Lurralde mailako txapelketa, 5 puntu

-Euskadiko txapelketa , 10 puntu

-Espainiako txapelketa, 25 puntu

Parte hartzaileen kopurua

500 edo gehiago…………..50 puntu arte.

301 - 500 artean…………..40 puntu arte.

251-300 ………….. gehienez 20 puntu.

101 - 250 ………….. gehienez 10 puntu.

51 -100 ……………. gehienez 3 puntu.

50 edo gutxiago………………0 puntu.

Bertako kirolaren inguruko jarduera 5 puntu

Behar bereziak dituzten pertsonei bereziki zuzendutako jarduerak edo horien aldeko ekintza positiboak, gehienez 10 puntu.

Emakumeentzako bakarrik antolatutako jarduerak edo emakumeek parte hartzearen aldeko ekintza positiboak, gehienez 10 puntu.

- 25 aniversario: 10 puntos
- 50 aniversario: 20 puntos
- 75 aniversario: 50 puntos
- Centenario: 100 puntos

Recursos humanos organizativos

menos de 20 personas.... hasta 5 puntos.

20-50 personas………hasta 10 puntos.

51-100 personas………hasta 25 puntos

Nivel deportivo

- Campeonato provincial, 5 puntos

- Campeonato autonómico, 10 puntos

- Campeonato estatal, 25 puntos

Número de participantes

500 o más………….. hasta 50 puntos

Entre 301 - 500 …….hasta 40 puntos

Entre 251-300……... hasta 20 puntos

Entre 101 – 250…….hasta 10 puntos

Entre 51 -100……….hasta 3 puntos

Menos de 50………..0 puntos

Evento de modalidad autóctona 5 puntos

Actividades deportivas dirigidas exclusivamente a personas con necesidades especiales, o acciones positivas a su favor: hasta 10 puntos

Eventos deportivos exclusivos para mujeres o acciones positivas en favor de su participación: hasta 10 puntos.

**Antolatutako jarduera edo ekitaldiaren balio erantsia.**

Gehienez ere beste 20 puntu gehitu daitezke:

.-Genero-etena murriztera eta rol estereotipatuak hausten laguntzera bideratutako lehia-jarduerak, gehienez ere, 10 puntu, honela banaturik:

.-Kirolarien parte-hartzea : 2 puntu.

.-Sariak (kopurua, nolakotasuna): 2 puntu.

.-Genero-rolak (estereotipoak haustea) antolakuntzan, sari-banaketan: 2 puntu.

.-Hizkuntza ez sexista (ahozko mezua, idatzia): 2 puntu.

.-Kirolaren arloko erreferente femeninoak agertzea: 2 puntu.

.-Egoera ahulean dauden edo gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden gizarte-taldeak gizarteratzearen aldeko lehia-jarduerak, gehienez 10 puntu, intzidentziaren arabera (baxua 2 puntu, batez bestekoa 5 puntu, altua 10 puntu).

**ELKARTEEN JARDUERAK, LEHIARIK GABEKOAK**

Atal honetan sar daitezke elkarteek eskaini eta sustatzen dituzten lehiarik gabeko kirol jarduerak, naturan txertatutakoak.

Integrazioari, gizarteratzeari, berdintasunari, bizikidetzari eta elkarbizitzari balio erantsia ematen dioten

**Valor añadido de la actividad o evento organizado.**

Podrán añadirse hasta un máximo de 20 puntos:

.-Actividades de competición encaminadas a reducir la brecha de género y a propiciar la ruptura de roles estereotipados, hasta un máximo de 10 puntos, distribuidos:

.-En la participación de deportistas: 2 puntos

.-En lo premios (cantidad, cualidad): 2 puntos.

.-En los roles de género (ruptura estereotipos) en tareas organizativas, en la entrega de premios: 2 puntos

.-En el uso del lenguaje no sexista (mensaje oral, escrito): 2 puntos

.-En la participacion de mujeres referentes del deporte : 2 puntos

.-Actividades de competición en favor de la inclusión y la integración de grupos sociales desfavorecidos o en riesgo de exclusión social, máximo de 10 puntos, en función de la incidencia (baja 2 puntos/media 5 puntos; alta 10 puntos).

**ACTIVIDADES DE CLUB DE CARÁCTER NO COMPETITIVO.**

Podrán considerarse en este apartado aquellas actividades deportivas no competitivas y de interés social.

Se valorarán aquellas propuestas que generen valor añadido en relación a la integración, inclusión, equidad,

proposamenak baloratuko dira, beti ere, bere gastuak 1.500 €-tik gorakoak badira. Gehienez ere, 5 puntu emango zaizkio jarduerako.

convivencia de las personas, siempre que su presupuesto de gasto sea superior a 1500 €. Hasta un total de 5 puntos por actividad.

Puntuaren balioa zein izango den zehazteko, atal honetako dirulaguntzak guztira izango duten zenbatekoa hartu, eta onartutako eskaera guztiei emandako puntuekin zatitu beharko da. Dirulaguntza izango da eskaera bakoitzak lortu dituen puntu guztien batura.

El valor del punto será el resultado de dividir el importe de las subvenciones establecidas para este apartado entre los puntos asignados al conjunto de las solicitudes admitidas. La subvención será la suma resultante del valor de todos los puntos.

Hitzarmenak eskola kirolarekin.

Convenios con el deporte escolar

Udalerriko kirol-kluben eta ikastetxeen edo horietako guraso elkarteen artean egiten diren hitzarmenengatik, klubak jaso ahal izango du hauen arabera zehaztuko den dirulaguntza bat: emandako saio-kopurua, begirale-kopurua eta saioaren prezioa orduko. Saioko prezioa urtero zehaztuko da hitzarmenaren kopurua, eskainitako jardueraren izaera eta kreditu erabilgarria kontutan hartu eta gero.

Por los convenios que se formalicen entre clubs deportivos y centros escolares o asociaciones de padres y madres vinculadas al centro escolar, el club podrá percibir ayudas económicas que se determinarán en función del número de sesiones impartidas, número de monitores-as y precio/hora de la sesión. El precio por sesión se fijará anualmente según el número de convenios, la naturaleza de la actividad ofertada y la disponibilidad de crédito.

Hitzarmen horietan, gutxienez, jaso beharko dira helburua, alderdien funtzioak eta betebeharrak eta hitzarmenaren indarraldia. Hitzarmenak berariaz aipatuko du neskek eta mutilek tratu eta aukera-berdintasuna izango dutela; era berean jasoko du euskara izango dela ikasleekin erabiliko den hizkuntza.

Estos convenios deberán recoger, cuando menos, el objeto del mismo, las obligaciones y funciones de las partes, y su vigencia. Además harán mención expresa a la igualdad de trato y oportunidades de niños y niñas, así como al uso del euskera como lengua de funcionamiento con el alumnado.

Hitzarmenak, beti, klubeko presidenteak eta ikastetxeko eskola kiroleko egituraren zuzendariak sinatuta egongo dira; justifikazio-memoriarekin batera aurkeztu behar dira.

Los convenios deberán estar firmados, en todos los casos, por el presidente del club y el responsable máximo de la estructura de centro escolar, y presentados junto a la memoria justificativa.

Hitzarmena dagokion justifikazioarekin batera aurkeztu beharko da. Horrela bakarrik izango du eragina dirulaguntzan. Hori horrela, banatu behar den guztizko kopurutik hitzarmen hauek gauzatzeko kopurua kendu ahal izango da. Soberakinik geratuz gero kendutako kopuruan, berriro ere hasierako partidari gehituko zaio.

Sariak-Trofeoak

Dirulaguntza-lerro honetarako baimendutako gastu osoaren gain partida bat gorde ahal izango da. Gordetako zenbatekoa jarduera ezberdinetarako sari eta trofeotara bideratuko da, eta jarduera bakoitzeko gutxieneko kopurua 150 € izango da, jardueraren berezitasunaren arabera. Sari eta trofeoengatik emango den zenbatekoa puntuazio osoagatik eskuratutako guztizkoari erantsiko zaio.

Nolanahi ere, kontzeptu hauetara (hitzarmenak, sari-trofeoak) bideratuko den diru kopurua deialdi bakoitzean erabakiko da.

**7.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA**

Emandako dirulaguntza bi zatitan ordainduko ahal izango da. Lehen zatia ebazpena emandakoan, eta kopuru osoaren % 50 izango da.

Dirulaguntzaren bigarren zatia erakunde hartzaileek justifikazio-agiriak aurkeztu ondoren likidatuko da.

El convenio habrá de presentarse junto a la justificación pertinente. Sólo así tendrá efecto para la subvención. En este sentido,del importe total a repartir podrá detraerse un cantidad económica a fin de subvencionar la materialización de estos convenios. Caso de quedar algún remanente en la cantidad detraída, se añadirá nuevamente a la partida inicial.

Premios-Trofeos

Se podrá reservar una partida económica sobre el gasto total autorizado para esta linea de subvención. Dicha reserva irá destinada a premios y trofeos de las diferentes actividades, desde un mínimo de 150€ por actividad y de acuerdo a la singularidad de la misma. La cantidad otorgada por este concepto se añadirá al total obtenido por las puntuaciones.

En cualquier caso, la cantidad destinada para estos conceptos (convenios y trofeos-premios) se determinará en cada convocatoria

**7.-ABONO DE LAS SUBVENCIONES**

La subvención concedida podrá se abonarse en dos partes. Una primera parte tras la resolución de la subvención y que será del 50% del total de la subvención.

La segunda parte de la subvención se liquidará una vez que las entidades perceptoras presenten la documentación justificativa.

## 8.- JUSTIFIKATZEKO KONTUA

Elkarte bakoitzari emandako dirulaguntzak dirulaguntzaren urteko deialdiak ezarritakoaren epeen araber ordainduko dira.
Dirulaguntzaren kitapenerako, elkarte eskatzaileak zuriketarako dokumentazioa bete beharko du horretarako dagokion inprimakietan:

.-Kirol memoria (A1M inprimakia).
Memoria honek datu estatistikoak eta informazioa Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 29.artikuluan emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Legearen 20.2 artikuluan xedatutakoaren arabera tratatuko ditu.

.-Diru-sarrera eta gastuen balantzea ( BAL-KI inprimakia).

.-Fakturen zerrenda (horretarako prestatutako inprimakia, GAS-KI)

.-Hala badagokio, jardueraren memoria berezia (A3-Memoria inprimakia). Memoria honek datu estatistikoak eta informazioa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Legearen 20.2 artikuluan xedatutakoaren arabera tratatuko ditu.

Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak IV. Kapituluan (28, 29, 30 artikuluetan) xedatzen duena aplikatuko da.

60.000 euroz azpiko dirulaguntzen kasuan, justifikatzeko kontu sinplifikatua erabiliko da eta nahikoa izango da gastu-frogagirien lagin bat egiaztatzea. Lagin hori Dirulaguntzen Ordenantza

## 8.- CUENTA JUSTIFICATIVA

El abono de las subvenciones concedidas se realizará conforme a los plazos establecidos en la convocatoria anual.

Para la liquidación de la subvención, la entidad solicitante deberá presentar la cuenta justificativa, rellenando los impresos preparados al efecto:

*.-Memoria (impreso A1M).*
Esta memoria tratará los datos estadísticos y la información conforme a lo dictado en el artículo 29 de la Ordenanza general de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa, artículo 20.2 de la ley 3/2007 para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

*.-Balance de ingresos y gastos (*impreso BAL-KI)

*.-Listado de Facturas* (Impreso preparado al efecto) impreso GAS-KI

.-Si fuera el caso, la *memoria de actividad especial* organizada (Impreso A3M) .Esta memoria tratará los datos estadísticos y la información conforme a lo dictado en el artículo 20.2 de la ley 3/2007 para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

Será de aplicación lo regulado en el Capítulo IV (artículos 28,29,30) de la Ordenanza General de Subvenciones.

Para subvenciones inferiores a 60.000 euros se optará por la cuenta justificativa simplificada, y será suficiente justificar una muestra del total de los gastos. Esta muestra se obtendrá de la aplicación de la

Orokorrean adierazten den formula aplikatuz lortuko da.

fórmula establecida en la Ordenanza General de Subvenciones.

Gastu-frogagirien lagina osatzen duten gastuak behar bezala justifikatzeko, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak aurkeztu beharko dira eta horiek, Dirulaguntzen Ordenantza Orokorreko, dagokion artikuluan aipatzen den zerrendan sartuta egon beharko dute. Agiri horiei erantsiko zaie gastua ordaindu izanaren dokumentazioa.

Jatorrizko agiri horiek aurkeztuko dira hurrenez hurren ordenatuta zerrenda zenbakituan emandako hurrenkera-zenbakiaren arabera.

Para la adecuada justificación de los gastos que constituyen la muestra de justificantes de gasto, deberán presentarse facturas y demás documentos de valor para el tráfico jurídico mercantil o eficacia administrativa, que deberán estar incluidos en la relación a que se refiere la Ordenanza General de subvenciones en el artículo correspondiente. A dicha documentación se acompañará la documentación del pago del gasto.

Estos documentos originales se presentarán ordenados según el número de orden asignado en la relación numerada.

Aurkeztutako gastuen frogagiriek bat etorri behar dute justifikatzeko kontuan zehaztutako faktura-zerrendarekin. Banaka hartuta emandako dirulaguntzaren % 25 gainditzen duten frogagiri guztiak aztertuko dira.

Eskatutako frogagiria aurkeztuko ez balitz, gastuetatik kenduko da eta ez da kontutan hartuko dirulaguntzarako.

Los justificantes de gasto presentados deberán corresponderse con el listado de facturas detallado en la cuenta justificativa. Se comprobarán todos los justificantes que superen individualmente el 25% del importe de la subvención concedida.

Caso de no presentarse para la comprobación el justificante solicitado se restará del total del gasto y no se tendrá en cuenta para la subvención.

Kirol denboraldiaren barruan sortzen diren gastuak onartuko dira; baita kirol denboraldiari loturikoak direla justifikatzen direnak ere.

Se admitirán aquellos gastos que se devenguen dentro de la temporada deportiva y/o que se justifique que se vinculan a ésta.

Gastuak jatorrizko fakturen bidez edo froga-balio baliokideko agirien bidez egiaztatu behar dira.

Los gastos deberán acreditarse mediante facturas originales o documentos de valor probatorio equivalente.


Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxa: 943 69 75 10 - e-mail: udate@tolosa.eus

www.tolosa.eus

Pertsonal gastuak honako agiri hauen bidez egiaztatu ahal dira:

.-nominak, edo nomina programatik lortzen den langileko urte osoko laburpena, biak sinatuta.

.- TC1 eta TC2

.- 190 eredua

Ordainagiri gisa, honako dokumentu hauek onartuko dira:

.- Banku-laburpena edo ziurtagiria.

.- Hornitzaileak ordainketa jaso izanaren agiria.

Eginiko eskaeretan edo haiekin batera aurkeztutako agirietan akatsen bat badago, interesdunei eskatuko zaie konpon ditzatela aurkitutako akatsak.

Dokumentazio hori epe barruan aurkeztu ezean, dirulaguntza jasotzeko aukera galduko du eskatzaileak. Era berean, datuak ezkutatuz gero, edo datu faltsuak emanez gero, dirulaguntzak jasotzeko aukera galduko du, eta hainbat kasutan, baita etorkizuneko dirulaguntzak jasotzekoa ere.

Eskaeran agertzen diren datuak ez badira behar bezala egiaztatzen, ez dira aintzat hartuko eskaera baloratzerakoan.

**9.-ESPEDIENTEAREN INSTRUKZIOA, BALORAZIOA ETA EBAZPENA**

Eskaeren balorazioa egitea Herritarren arloko batzordeari dagokio. Balorazioa

Los gastos de personal se pueden acreditar mediante los siguientes documentos:

.-nóminas, o resumen anual completo por trabajador que se obtenga del programa de nómina, ambos firmados.

.- TC1 y TC2

.- Modelo 190

Como justificantes de pago se admitirán los siguientes documentos:

.- Resumen bancario o certificado.

.- acuse de recibo del pago por parte del proveedor.

En el supuesto de que las solicitudes formuladas o su documentación anexa presente alguna anomalía, se requerirá a los/as interesadas/os para que subsanen los defectos formales advertidos.

La no presentación, en plazo, de los documentos requeridos supondrá la pérdida de toda opción a ser beneficiaria/o de percepción de subvención. De igual manera, la ocultación o falseamiento de losdatos supondrá la pérdida del derecho a dichas subvenciones y, en su caso, a posteriores.

Los datos alegados en la solicitud y que no sean debidamente justificados no se tendrán en cuenta en la valoración de solicitud.

**9.-INSTRUCCION DEL EXPEDIENTE , VALORACION Y RESOLUCION**

Corresponderá a la comisón informativa del área de ciudadanía la valoración de las

Saileko arduradunaren txostenean oinarrituko da. Balorazio hori eta dirulaguntza emateko proposamena organo eskudunaren esku jarriko da, hark onar dezan.

solicitudes, que se basará en el informe emitido por la responsable del departamento. Dicha valoración y propuesta de concesión se someterá al órgano competente para su aprobación.

Emakida-prozedura ebaztea alkatearen edo hark eskuordetutako organoaren eskumena da.

La resolución del procedimiento de concesión es competencia de la alcaldesa u órgano en quien delegue.

**10.- DIRULAGUNTZEN KONTROLA**

Udalak beretzat gordetzen du datuak fidagarriak direla eta dirulaguntzak egoki erabili direla egiaztatzeko egoki iruditzen zaizkion frogaketa guztiak egiteko eskubidea.

**10.CONTROL DE LAS SUBVENCIONES**

El Ayuntamiento se reserva el derecho de hacer cuantas comprobaciones considere oportunas para verificar la fiabilidad de los datos y la correcta utilización de las subvenciones.

| **2. ERANSKINA: ESKOLA KIROLAREN KUDEAKETARAKO ETA ARRETARAKO EGITURA ESPEZIFIKOAK SORTU ETA GARATZEKO, IKASTETXEEI EDO GURASO ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK** | **ANEXO 2: BASES REGULADORAS PARA EL OTORGAMIENTO DE SUBVENCIONES A CENTROS ESCOLARES O AMPAS PARA LA CREACIÓN Y DESARROLLO DE ESTRUCTURAS ESPECÍFICAS DE GESTIÓN Y ATENCIÓN DEL DEPORTE ESCOLAR.** |
|---|---|

**1. HELBURUA**

Oinarri hauen helburua Tolosako ikastetxeek edo Guraso elkarteek, dirulaguntzak eskuratzeko duten aukera arautzea da eta laguntza horien

**1. OBJETO**

Es objeto de las presentes Bases la regulación del acceso y concesión de ayudas económicas a centros escolares de Tolosa o AMPAS, para la creación y

kontzesioa, eskola kiroleko kudeaketa eta arreta hobetzeko izaera egonkorra izango duten egitura espezifikoak sortzeko eta garatzeko izango da.

desarrollo de estructuras específicas de carácter estable, destinadas a la mejora de la gestión y de la atención de las actividades de deporte escolar.

**2. ERAKUNDE ONURADUNAK**

Baldintza hauek betetzen dituzten ikastetxeek edo ikastetxeetako Guraso elkarteek eskatu ahal izango dute dirulaguntza:

• Tolosako izango dira.

• Gipuzkoako Foru Aldundia eta Tolosako Udalaren irizpideekin bat datorren jarduera egitarau bat (Jolashezi, multikirola) diseinatu, non bermatuko diren neskek eta mutilek tratu eta aukera-berdintasuna izango dutela.

**2. ENTIDADES BENEFICIARIAS**

Podrán acceder a estas ayudas los centros escolares o AMPAS que cumplan los siguientes requisitos:

• Estar situados en Tolosa.

• Diseñar un programa de actividad (Jolashezi, multikirola) acorde a las directrices de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del Ayuntamiento de Tolosa, que garantice la igualdad de trato y oportunidades de niñas y niños.

**3.- ESKAEREN AURKEZPENA**

Aurreko atalean zehaztutako baldintzak bete eta dirulaguntza hauek eskatu nahi dituzten ikastetxeek edo Guraso elkarteek honako hau aurkeztu behar dute Udaletxeko erregistroa elektronikoa bidez kiroletako dirulaguntza eskaera izeneko inprimakia, behar bezala beteta, eta berarekin batera, oinarri hauetan eskatzen diren agiriak.

• Programa-jardueren aurreikuspena eta aurrekontua (A2P inprimakia)

**3.- PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES**

Aquellos centros escolares o AMPAS que cumplan los requisitos especificados en el apartado anterior y que deseen optar a las presentes ayudas, deberán presentar en el registro electrónico del Ayuntamiento: el impreso de Solicitud de subvención de deportes debidamente cumplimentado. Junto a la solicitud habrá de presentarse la siguiente documentación:

• Programa-previsión de actividad y presupuesto (impreso A2P).

• Zergei dagozkien betebeharretan (Ogasuna eta Gizarte Segurantza) eguneratuta daudelako ziurtagiriak eskaera honetan aurka egiteko eskubideaz baliatu bada.

## 4. ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Ikastetxe edo elkarte onuradunak honako betebehar hauek izango ditu:

a) Eskola kirolaren arretarako egitura espezifikoa ezartzeko konpromisoa hartuko du, jarduerak egiterakoan sortzen diren koordinazio-beharrak eta irakasleen/teknikarien beharrak aseko dituena.

b) Ordezkari bat izendatuko du, eta ikastetxeak antolatutako eskola-kirolen koordinazio funtzioak beteko ditu. Koordinatzaile hori izango da eskola-kirolen gaineko solaskide bakarra Kiroletako Udal Zerbitzuarekin hitz egiteko.

c) Ikastetxeak zehaztu beharko ditu eskola-kiroleko egituraren eta kirol elkarteen edo beste erakundeen arteko harremanak bideratzeko modurik egokienak, eskola-kirol jarduera horiek behar bezala txerta daitezen ikastetxeko hezkuntza-proiektu orokorrarekin.

• Justificantes de estar al corriente en sus obligaciones fiscales y para con la seguridad social si se ha ejercido el derecho de oposición.

## 4. OBLIGACIONES DE LAS ENTIDADES BENEFICIARIAS

El centro escolar o asociación beneficiaria tendrá las siguientes obligaciones:

a) Asume el compromiso de crear una estructura específica para la atención del deporte escolar, que satisfaga las necesidades de coordinación y técnico-docentes derivadas de la realización del programa deportivo diseñado.

b) Designará un/a representante que efectúe las funciones de coordinación de las actividades de deporte escolar programadas por el centro. Este/a coordinador/a será el/la interlocutor/a único/a con el Servicio Municipal de Deportes para todas las cuestiones que afecten al deporte escolar.

c) Determinará las formas más adecuadas de articular relaciones entre la estructura de deporte escolar del centro, los clubs deportivos y otras entidades, de forma que se garantice la correcta inserción de estas actividades de deporte escolar en el proyecto educativo global del centro.


Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxa: 943 69 75 10 - e-mail: udate@tolosa.eus
www.tolosa.eus

d) Egitura horretako eskola-kiroleko koordinatzailea ikastetxearen pean edo kasuan kasuko erakundearen pean egongo da. Bidezkoen iruditzen zaizkien modu eta baldintzetan kontratatuko dute, haren gaikuntza egokia bermatzeko, ez soilik alderdi teknikotik edo kirol alderditik, baita eskola kirolarekin zerikusia duten beste hezkuntza-planteamenduen aldetik ere bai.

Monitore edo begiraleen kasuan, berriz, ikastetxe bakoitzak, bere berezitasunen baitan, erabakiko du zein formula aplikatu, beti ere, kirol elkarteen parte-hartzea izanik egokiena eta bultzatu beharrekoa, ikastetxeekin hitzarmenak sinatuta. Hala, ikastetxeek kirol-klubetako zerbitzu teknikoen parte-hartzea izango dute kirol-jardueretan hasteko prozesuan, betiere ikastetxeak ezarritako hezkuntza-helburuak kontuan izanda.

Ikastetxeak erraztuko du, adin jakin batzuetan eta modalitate bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuta, ikasleak kirol-klubetara joatea, kirola egiten jarrai dezaten bermatzeko, bai errendimendu helburuei begira, bai aisialdiko helburuei begira, behin eskola denboraldia amaitzen denean.

d) El/la coordinadora de deporte escolar perteneciente a esta estructura dependerá del centro escolar o de la entidad que en su caso se determine. Será contratada/o en la forma y condiciones que el centro o entidad estime más procedente, de forma que se garantice la adecuada capacitación, no sólo en cuanto a los aspectos técnico-deportivos, sino también en otros aspectos relacionados con los planteamientos educativos del deporte escolar.

En cuanto a las/os monitoras/es, cada centro optará por la fórmula más acorde a su particularidad, si bien será deseable, y así se propiciará que los clubs deportivos locales formalicen convenios de colaboración con los centros escolares, de manera que se produzca una participación de los servicios técnicos de los clubes deportivos en los procesos de iniciación deportiva de los escolares, de acuerdo con los objetivos educativos fijados por el centro escolar.

El centro escolar propiciará llegado el caso, que, en determinadas edades y de acuerdo con las características de cada modalidad deportiva, las-os escolares puedan acceder a los clubes deportivos, como garantía de continuidad en la práctica deportiva, bien con objetivos de rendimiento, bien con objetivos recreativos, una vez finalizado el período de escolarización.

e) Eskola-kiroleko egiturek, Udalak eta kirol elkarteek sustatuko dute eskola-kiroletako teknikari horiek prestakuntzarako jardueretan parte har dezaten, haien kualifikazio egokiena

e) Las estructuras de deporte escolar, junto con el Ayuntamiento y los clubs deportivos incentivarán la participación de estas/os monitoras/es de deporte escolar en actividades de formación, procurando

ahalbideratzen. Teknikarien profesionalizazioa eta erregularizazioa eskola-kiroleko egituren helburu bat izango da.

la cualificación óptima de éstos. La profesionalización y regularización laboral del personal técnico será un objetivo de las estructuras de deporte escolar.

f) Eskola-kiroleko egiturek eskualdeko Eskola Kirolen Batzordean parte hartzeko konpromisoa hartuko dute. Parte-hartze hori, behar den unean, ikastetxeko eskola kiroletako koordinatzailearen bitartez gauzatuko da, Usabal kiroldegian astero egiten diren bileretan parte hartuz.

f) Las estructuras de deporte escolar se comprometerán a participar en la mesa comarcal de Deporte Escolar. Esta participación se materializará, en su momento, por medio del coordinador de deporte escolar del centro, en reuniones semanales en el polideportivo Usabal.

g) Egitura bakoitzak izango du ikasturteko kirol-egitaraua (Jolashezi, Multikirola) non sartuko dituen hala ibilbideak nola jarduerak, baina aintzat hartu gabe haiek garatuko direneko eremu fisikoa (ikastetxea, kirol-kluba, udal instalazioak) eta urte sasoia (eskola edo opor garaia).

g) Cada estructura dispondrá del programa deportivo (Jolashezi, Multikirola) que incluirá en el mismo tanto los itinerarios como las actividades, independientemente del marco físico en el que se desarrollen (centro escolar, club deportivo, instalaciones municipales) y época del año (períodos escolares o vacacionales).

h) Kirol proiektu honek oinarritu beharko du, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Eskola kirolari buruzko indarrean dagoen gida-lerro eta legedian. Aldi berean, bat etorri behar du Udalaren kirol politikako interesekin eta ikastetxearen beraren helburuekin. Eskola-kiroleko proiektua ikastetxe bakoitzeko ordezkaritza-organo gorenean onartu beharko da.

h) Dicho proyecto habrá de asentarse en las directrices y legislación que en materia de deporte escolar tenga vigentes el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa. De igual manera, estará en consonancia con los intereses de la política deportiva municipal y los propios objetivos del centro escolar, y de forma coordinada con el resto de centros escolares de la localidad.

Jolashezi programak Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako eduki didaktikoak jarraitu beharko dituzte: Jolashezi proiektua.

El programa de Jolashezi deberá seguir los contenidos didácticos facilitados por la Diputación Foral de Gipuzkoa: Proyecto Jolashezi.

TOLOSAKO UDALA

i) Egitura bakoitzaren eskumena izango da eskola-kiroleko hezkidetza-helburuak betetzen direla zaintzea, kirol-jardueretan neskek eta mutilek tratu eta aukera-berdintasuna izango dutela ahalbidetuz, betiere helburu horiek betetzen direla bermatzen bada.

